

Erretiroa?



ENEKO OLASAGASTI
ZUZENDARIA ETA
GIDOILARIA

Ez dizut ukatuko pena pixka bat ematen didanik kateak deskatalogatuta edukitzea, badakit bizilegedela. Onartzen dut tristura puntu batekin, baina trauma handirik gabe” (Xabier Euzkitze).

Batzuetan gertatzen da buruan bueltaka dabilkizuna bat-batean idatzita ikusteak. Horixe bera gertatu zitzaidan Xabier Euzkitzeren hitz horiek irakurri nituenean. Hitzez hitz sinatuko nituzke oraintxe hor esandakoak. Gai bera aspaldi nerabilen bueltaka baina ez dut orain arte sentipen horiek hitzetan ipintzeko ausardiarik bildu. Ziurrenik gure herri maite honetan lotsa handia daukagu hainbat gauzez hitz egiteko orduan. Ez dugu gure alde tristea azaldu nahi izaten, badirudi behartuta gaudela zoriontsuak garela esatera. Kanean aspaldi ikusi gabeko lagunarekin topo egitean bezala. Zer moduz galderari beti “ondo” erantzutea, nahiz eta barrutik kristo bat egina egon, banatu berria eta lan (diru) kontuekin larri. Baina erantzuna beti “ondo”, gezur galanta bada ere. Zergatik ez gara egia esatera ausartzen? Lotsagatik, gure barruak aireratzen ez hasteagatik, besteari bost axola zaiolako agian...

Adin batetik gora dugunoi gertatzen ari zaigu, merkatutik kanpo geratzen ari

gara. Gizarte honek gazteen gorazarrea egiten du. Gure arloan diskriminazio positiboa dago gazteen alde, emakumeen alde, emakume gazteen alde... Eta ez nago kontra. Baina ofizio honetan bizitza osoa pasa dugunok ez al dugu gure lan-bizitza bertan bukatzea merezi? Gainera, eskarmentua bilduta daukagu, esango nuke egun gazte garaian baino hobeto ezagutzen dugula ofizioa. Gazte garaian ausardia bai baina ezagutza gutxi. Gure belaunaldiari zerotik hastea tokatu zitzaion gainera, eta orain gure ibilbidearen azken zatian sartu garenean, zerora hurbiltzen ez ote garen ari susmoa hartzen ari naiz. Eta bitartean etxeko tiraderak bidean geratu eta geratzen diren egitasmoz betetzen darrai. Adin batera iritsi zaren seinalea da tiradera horretan daudenak gauzatu dituzunak baino gehiago direnean.

Nik ez dut erretiroa aukeratu, baina konturatzerako gertuago gaude jubilaizio adinaren ataritik, nahiz eta lanean segitzeko gogoak ez diren desagertu. Eta horri gehitu behar zaio gure ofizioaren ezaugarrietatik asko kotizatu ez dugunez pentsio ziztrin batekin konformatu beharra. Euzkitzek dioen bezala: traumarik ez baina bai tristura puntu bat. ●

Gorputz ziklikoak



EVA PEREZ-PONS
ANDRADE

Hamabost urte izango dira hilekoa dudala, eta ausartuko nintzateke esatera oraindik ez naizela ohitu hilerio nire gorputzak pairatzen dituen aldaketetara, hilekoa ez baita soilik egun batzuk irauten dituen odol fluxua.

Zintzoki aitortuko dut nire burua denbora luze ibili dela sexu-genero sistemaren narratiba hegemonikotik at dagoen *bollera* transfeminista identitate idealari heldu nahian, baina gorputzak intermitenteki ihes egin diola. Ze, batzuetan, kontrolaezina da. Mingarria da arrazionaletik emozionalerako salto hori. Are, borroka horren erdian zure gorputzari aukeratu eta nahi

ez duzun prozesu zikliko baten ondorioz titiak puztu eta aldakak zabaltzen zaizkionean. Mingarria eta nekagarria.

Ezin gara egoera egonkorretan definitu, batzuetan fuerte gaude eta beste batzuetan ez horrenbeste, zaurgarritasun horretan ulertu behar ditugu gure gorputzak, eta baita gure identitateak ere. Ulertu behar dugu generoa naturala ez den era berean, gorputza ere ez dela naturala, eta beharrezkoa dela hari entzutea. Guztiz zilegia baita ongi sentitzeko hautuak hartzea, nahiz eta jakin betirako izango ez direla, helburua prozesua delako, eta ez emaitza. ●